

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA

FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

KULTURARTEKOTASUNA ETA FUTBOLA

Gasteizko futbol jokalarien kasuaren gaineko ikerketa

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Galdos Moreno, Mikel.

ZUZENDARIA: Arregi Orue, Joseba Iñaki.

2021

LABURPENA

Gaur egun, globalizazioak eragindako migrazio-mugimenduen ondorioz, kultura-talde desberdinak lurralde berean bizi dira herrialde askotan. Euskal Autonomoa Erkidegoan ere egoera hori gertatzen da, horregatik esan dezakegu gizarte kultur-anitz batean bizi garela. Kultura-talde horien kideen arteko harremana koexistentzia soila izan ez dadin, kulturartekotasunaren alde egin beharko genuke, talde hauen arteko harremana, ezagutza eta elkartrukea bultzatzeko. Hori lortzeko garrantzitsua da kultura talde desberdinen elkargune diren ekintzak eta espazioak bilatzea eta bultzatzea, eta horren eredu dira bai eskola, baita talde kirol-jarduerak ere. Lan honen helburu nagusia, beraz, futbolaren praktika kulturartekotasunean oinarritutako elkarbizitza sustatzeko tresna baliagarria den ala ez aztertzea da. Hori lortzeko Gasteizko hirian futbolearen aritu diren pertsonen zuzendutako galdetegi bat martxan jarri da, hauen esperientzia eta iritzietatik abiatuta aurreko ideia egiaztatzeko.

Hitz-gakoak: Kulturartekotasuna, kultur-aniztasuna, kirola, futbola, kulturarteko hezkuntza, immigrazioa, gizarte-harremanak.

RESÚMEN

En la actualidad, debido a los movimientos migratorios provocados por la globalización, diferentes grupos culturales conviven en un mismo territorio en muchos países. En la Comunidad Autónoma Vasca también se da esa situación, por eso podemos decir que vivimos en una sociedad multicultural. Para que la relación entre los miembros de estos grupos culturales no sea una mera coexistencia, deberíamos apostar por la interculturalidad, para favorecer la relación, el conocimiento y el intercambio entre estos grupos. Para lograrlo es importante buscar e impulsar acciones y espacios que sirvan de punto de encuentro a diferentes grupos culturales, siendo ejemplo de ello tanto la escuela como las actividades deportivas de equipo. El objetivo principal de este trabajo es, por tanto, analizar si la práctica del fútbol es una herramienta útil para fomentar la convivencia basada en la interculturalidad. Para lograrlo se ha puesto en marcha un cuestionario dirigido a las personas que han jugado al fútbol en la ciudad de Vitoria-Gasteiz, para analizar si a partir de sus experiencias y opiniones se puede comprobar la idea anterior.

Palabras clave: interculturalidad, diversidad cultural, deporte, fútbol, educación intercultural, inmigración, relaciones sociales.

ABSTRACT

Nowadays, due to migratory movements caused by globalisation, different cultural groups live together in the same territory in many countries. This situation also exists in the Basque Autonomous Community, that is why we can say that we live in a multicultural society. For the relationship between the members of these cultural groups to be more than just coexistence, we should be committed to interculturality, to encourage the relationship, knowledge, and exchange between these groups. To achieve this, it is important to seek and promote actions and spaces that serve as a meeting point for different cultural groups, such as schools and team sports activities. The main objective of this work is, therefore, to analyse whether the practice of football is a useful tool to promote coexistence based on interculturality. To achieve this, a questionnaire has been set up aimed at people who have played football in the city of Vitoria-Gasteiz, to analyse if that idea can be verified based on their experiences and opinions.

Keywords: interculturality, cultural diversity, sport, football, intercultural education, immigration, social relationship.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	5
2.	MARKO TEORIKOA.....	6
2.1.	Testuingurua. Kontzeptu gakoak.....	6
2.1.1.	Kultura.....	6
2.1.2.	"Kultur-askotasuna", "Kultur-aniztasuna" eta "Kulturartekotasuna".....	7
2.2.	Jatorri kanpotarreko biztanleak EAE-n.....	8
2.3.	Atzerritarren ondorengo diren gazteak.....	10
2.4.	Iritsi berriak diren gutxiengo kulturalen integrazioa. Perspektiba desberdinak.....	11
2.5.	Kulturartekotasuna helburu.....	12
2.6.	Kulturarteko topaguneak.....	14
2.7.	Kirola eta kulturartekotasuna.....	14
3.	METODOLOGIA.....	16
3.1.	Helburuak eta hipotesiak.....	16
3.2.	Erabilitako metodoa.....	17
4.	EMAITZAK.....	19
5.	ONDORIOAK.....	22
6.	MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	25
7.	ERREFERENTZIAK.....	27
8.	ERANSKINAK.....	30
8.1.	Eranskina. Galdetegia.....	30
8.2.	Eranskina. Galdetegan lortutako erantzunak.....	34

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

XX. mendearen erdialdetik aurrera, Europako esparruan gertatu diren kultur-aniztasun egoeren arrazoi nagusia gutxi garatutako herrialdeetatik garapen ekonomiko handia duten Europako herrialdeetara mugitu diren pertsona eta taldeen emigrazioa izan da. Nahiz eta hasiera batean migrazio gehienak kolonizazio eta hizkuntza arrazoiengatik Frantzia, Britainia Handia edo Holandara bideratuta zeuden, 1970. hamarkadatik aurrera joera hori aldatzen hasi zen, immigrazio fluxua beste eremu batzuetara ere hedatuz (García Martínez eta Sánchez Lázaro, 2012).

Espanian, adibidez, XXI. mendearen hasieratik, atzerrian jaiotako biztanleen kopurua nabarmen handitu da epe laburrean, Afrikako iparraldeko, Amerikako, Europako ekialdeko eta munduko beste eremu batzuetako herrialde garatuentzat erakarpen iturri indartsua bihurtu delako. Hori dela eta, Europa mailan atzeritar kopuru txikienetarikoa zuen herrialdea izatetik, gaur egun bere biztanleriaren zati handi bat jatorri kanpotarrekoa izatera igaro da (Reher et al., 2011).

Hori dela eta, Europako herrialde gehienetan jatorri eta kultura desberdineko pertsona eta familiak elkarrekin bizi dira hiri, herri eta auzo gehienetan. Euskal Autonomia Erkidegoa ere, aurrerago azalduko den moduan, errealitate kultur-anitz horren eredu da, eta horrek hainbat aldaketa eragin ditu gizartean. Hezkuntza sisteman, adibidez, argi ikus dezakegu eskolek aldaketa nabarmena izan dutela, azken hamarkadetan kultura eta etnia desberdineko ikasle kopuru handiaren etorrerarekin batera.

Horren harira, gure gizartean izandako kultur-aniztasunaren hedapenari buruz gogoeta egitean, interesgarria iruditu zitzaidan nire inguru hurbilean zenbateko kultura-aniztasuna dagoen aztertzea. Gasteizen, kultura desberdineko jende ugari ezagutu dut hainbat ingurutan, hala nola, eskolan, kirolean edo lagun artean. Oso adierazgarria da, nireaz bestelako kultura duten pertsonen gehiengoa futbol giroan ezagutu dudala.

Izan ere, hamar urte baino gehiagoz jokatu dut Gasteizko auzo bateko futbol taldean eta entrenatzaile moduan ere lau urte egin ditut beste auzo bateko klubean. Arabako beste talde batzuen aurka astero jokatu dut, eta horri esker baieztatu dezaket klub askotan dagoen kultur-aniztasuna nabarmena dela, jatorri desberdineko jokalar askorekin.

Horren zergatia futbola oso globalizatuta dagoen kirola dela izan daiteke, munduko herrialde askotan gehien praktikatzen den kirola delako eta kultura zein gizarte desberdinetara egokituta dagoelako. Horrekin batera, kirol hau praktikatzen ahal izateko material asko behar ez denez, edozein pertsonak eta edozein lekutan joka dezake futbolekin. Horregatik, oso ohikoa da

edozein herrialdetan jendea futbola praktikatzen ikustea, bereziki herrialde azpigaratuetan. Hego Amerikako herrialdeetan daukaten futbolarekiko zaletasuna eta pasioa handia da, eta hori bertako herri eta auzoetan islatzen da. Adibide argiak dira Brasil, Argentina, Kolonbia eta abar.

Horrez gain, talde-kirol bat denez, kideen edo pertsonen arteko harremana, interakzioa eta errespetua ezinbestekoak dira, eta ingurune oso egokia da kultura desberdinen arteko ezagutza eta harremana bultzatzeko.

Horrela ikusita, futbolak gure gizartean kulturartekotasuna sustatzeko baliabide egokia dirudi. Horregatik, nire helburua Gasteizko talde desberdinetan futbola praktikatzen duten pertsonen esperientziaren inguruko analisia egitea da, futbolaren praktika beste kultura batzuetako pertsonekin harremantzeko baliagarria ote den jakiteko.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Testuingurua. Kontzeptu gakoak

Lan honetan jorratuko diren kontzeptu nagusietan sakondu aurretik, garrantzitsua da kulturalki askotarikoak diren gizarteei buruz hitz egiterakoan asko entzuten ditugun termino batzuen esanahia ondo ezagutzea. Izan ere, termino horiek elkarren artean lotura dute eta erraz nahas daitezke.

2.1.1. *Kultura*

Lehenik eta behin, *kultura* terminoaren esanahia zehaztea egokia izango litzateke, kontzeptu horrek barne hartzen baititu lanean azaldu eta landuko diren gainerako kontzeptu eta ideia guztiak.

Kultura esanahi desberdinak izan dituen kontzeptua da, honen inguruko ikuspegiak ugariak izanik. Grimsonek (2008) azaltzen duen bezala, gaur egun badaude pertsonak eta erakundeak oraindik kultura kontzeptua “kulturadun” edo “kultura gabeko” gizaki izatea bezala ulertzen dutenak, konturatu gabe kultura desberdineko taldeak beraien kulturaren ikuspegi partikularretik abiatuta ebaluatzen dituztela. Kultura pertsona batzuk izan dezaketen ezaugarritzat hartuz, desberdinak direnak gutxiago balira bezala baloratzen dituzte, kultura desberdin horiek ulertu eta ezagutu daitezkeela jakin gabe.

Ikuspegi hori alde batera utziz, eta eredu antropologikoan zentratuz, Tylorek 1871. urtean egindako kulturaren planteamenduari erreferentzia egiten dio Grimsonek. Honen aburuz, giza

jarduera eta pentsamendu guztiak kulturaren alderdiak dira, eta kultura desberdinak egon arren, gizaki guztiak izaki kulturalak dira (Grimson, 2008).

Bestalde, Bernabék (2012) kultura horrela definitzen du: “kultura elementu sinboliko, ekonomiko eta materialen multzoa da, gizabanakoaren gizarte eta familia jarduerak markatzen dituen, garapen historikoak eta bizitzaren ondorioz jasotako hezkuntzak eragiten diotela ahaztu gabe. Horren bidez, gizakia bere buruaz jabetzen da, eta kultura etengabe eraikitzen ari dela aitortzen da”.

Azkenik, Millánek (2000) ematen duen definizioa honako hau da: “kultura zentzumenen sarea da, eguneroko bizitzako fenomeno edo gertaerei esanahiak emateko erabiltzen duguna, bai eta horiek giza talde bakoitzarentzat duten zentzua ere”.

Definizio hauek kontuan hartuz, kultura terminoa era orokor eta laburrean azaltzeko horrela definitu daiteke: giza talde guztiek daukaten eta hauek definitzen dituzten ohitura, ezagutza eta ideien multzoa da, belaunaldiz belaunaldi garapen historikoaren bidez transmititzen dena, eta giza testuinguru bakoitzean desberdina dena.

2.1.2. “Kultur-askotasuna”, “Kultur-aniztasuna” eta “Kulturartekotasuna”

Kulturaren inguruko definizioaz gain, lurralde berean kultura desberdinetako pertsonak bizitzearekin zerikusia duten 3 termino garrantzitsu azaltzen dizkigu Bernabék (2012) bere artikuluan, “*kultur-askotasuna*”, “*kultur-aniztasuna*” eta “*kulturartekotasuna*”. Antzekotasuna daukaten terminoak dira hauek, eta erraz nahastu daitezke, beraz, garrantzitsua da hauen arteko desberdintasunak ezagutzea.

Lurralde batean bi kultura edo gehiago aldi berean egoteari eta kultura horiek izan dezaketen harremanari “*plurikulturalitatea*” deritzogu, euskaraz “*kultur-askotasuna*”. Gaur egun, herrialde gehienetan “*kultur-askotasuna*” dago, izan ere, mundu mailan dauden migrazio mugimenduak eta iraganeko kolonialismoa bezalako gertakariak direla-eta, kultura eta etnia desberdineko pertsona-multzo ugari daude herrialde askotan (Bernabé, 2012).

Termino horretatik abiatuta, “*kultur-askotasuna*” existitzen den herrialde batean bi egoera desberdin gerta daitezke:

Alde batetik, lurralde batean kultura desberdinak existitzen badira baina horien artean harremanik ez badago, *kultur-aniztasuna* dagoela esaten da. Ez da kultura desberdin horien arteko hartu-emanik existitzen (Bernabé, 2012).

Bestalde, lurralde berdinean kultura desberdinak existitzeaz gain, hauen arteko komunikazioa, elkartzea eta desberdintasunen kontzientzia baldin badago, “*kulturartekotasuna*” dagoela

esan dezakegu. Egoera horretan, errazagoa da kulturen arteko ezagutza gertatzea, harreman kulturalak indartzea eta kulturen integrazioa areagotzea. Kulturartekotasunak, “kulturen artean” ideari erreferentzia egiten dio, eta hau lortzea gaur egungo edozein gizarte demokratikoren helburua izan beharko litzateke (Bernabé, 2012).

2.2. Jatorri kanpotarreko biztanleak EAE-n

Gaur egungo gizarte globalizatuan, migrazio mugimenduak, lurralde bateko kultur-aniztasunaren adibiderik argienak dira, horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleei buruzko datuak aztertuko dira atal honetan. Hala eta guztiz ere, lurralde batean immigraziorik ez egoteak ez du esan nahi kultur-aniztasuna existitzen ez denik.

Espainiako gizartea kultura-anitza izan da beti, lurralde berean aspaldidanik hizkuntza desberdinak dituzten pertsonak eta taldeak bizi izan direlako. Horien artean, etnia desberdinetakoak (ijitoen gutxiengoa, adibidez), nazionalitate desberdinetakoak (duela hamarkada batzuetatik kostaldean bizi diren alemaniar eta britainiar erretiratuak), erlijio ezberdinetakoak, tradizio ezberdinetakoak, eta ibilbide historiko eta kultural desberdinetakoak. Beraz, egiazta dezakegu barneko kultura-aniztasun handia dagoela. Hala ere, Europako Erkidegokoak ez diren immigranteen kolektiboak ikusarazi diren arte, Espainiako gizartea ez da kultura-anitzekotzat hartu. (Aguilar eta Buraschi, 2012, 28 orr.).

Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoa ez den etorkinen hartzaile tradizionala izan, Espainiako beste lurraldeen antzera atzerriko biztanleen helmuga garrantzitsua bihurtu da azken urteotan. Beste eskualde espainiar batzuekin konparatuta, EAEko migrazio intentsitatea txikiagoa eta atzeratuagoa da. Hala eta guztiz ere, etorkinen iritsiera esanguratsu horrek ondorio ekonomiko eta demografiko garrantzitsuak izan ditu (Núñez et al., 2018).

EAEko gaur egungo egoera ezagutzeko, Estatistika Institutu Nazionaleko datuak hartu dira oinarritzat, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, 2020. urtearen hasieran “*Atzerritar Jatorriko Biztanleak EAE-n 2020*” argitalpenean bildutakoak (Ikuspegi, 2020a). Datu horien arabera, Euskadira migrazio-prozesuak handitzen jarraitzen du, atzerrian jaiotakoen kopurua 241.193 pertsonakoa izanik. Hauek dira bertan eskaintzen diren daturik berrienak, geroztik, pandemiaren eraginez migrazio fluxuetan gertatu ahal izan diren aldaketak kontuan hartu gabe.

EAEen erroldatuta dagoen pertsona kopurua 2.219.777koa zen argitalpena plazaratutako momentuan, beraz, atzerrian jaiotako pertsonak euskal biztanleriaren %10,9a inguru errepresentatzen dute. Aurreko urtean biztanleria guztiaren %10,1a errepresentatzen zuten. Datu horiek alderatuz, atzerrian jaiotako biztanle kopuruak gora egin du urtebetean, atzeritik

etorritako 19.201 pertsona berriekin. Horrek eragin positiboa izan du EAEko azken urteetako dinamika demografikoetan, izan ere, Ikuspegiko argitalpenean azaltzen den moduan, “1998tik, 2020ko urtarrilaren 1a arte atzerrian jaiotako 219.029 pertsona etorri dira erkidegora, eta bertan jaiotakoen biztanleria-galera (93.710 pertsona gutxiago) orekatu du horrek. Horri esker, 1998tik gaur arte, EAEko biztanleria handitu egin da, 125.319 pertsona gehiagorekin,” (Ikuspegi, 2020a).

Espainiako beste autonomia-erkidegoekin konparatuz, EAEko immigrazio datuak batezbestekoaren azpitik daude. Aurretik aipatutako moduan, EAEko biztanleriaren %10,9a atzeritar jatorriko pertsonek osatzen dute; baina Madril eta Kataluniako %20,4rekin, edo Balear-uharteetako %24,1rekin konparatuz, alde handia dago (Ikuspegi, 2020a).

Pertsona hauen jatorriari erreparatuz, EAERanzko migrazio fluxuak askotarikoak dira, herrialde nagusiak Maroko, Kolonbia eta Errumania izanik. Horrez gain, biztanle kanpotarren kopuru totalaren erdia baino gehiago Hego Amerikako herrialdeetako jatorrikoak direla aipagarria da, jatorri kanpotarreko biztanle guztien %51,1a osatuz. Horren ostean, Europar Batasuneko jatorrikoak %16,2a dira eta Magrebeko jatorrikoak %14a. Horiek dira EAEko atzerriko biztanleen hiru jatorri nagusiak, eta azkenik, Afrikako (%7,3a), Asiako (%6,6a) eta gainerako herrialdeetatik etorritakoak (%4,8a) biztanle kanpotarren kopuru totala osatzen dute (Ikuspegi, 2020a).

Ikuspegiko azken datuen arabera, Araban 333.521 biztanle daude guztira, eta horietatik 43.410 jatorri atzeritarreko biztanleak dira, hau da, kopuru totalaren %13a inguru (Ikuspegi, 2021a).

Arabako eskualdeetan nola banatzen den aztertzen badugu, biztanle horien gehiengoa Arabako Lautadan bizi da, 37.000 inguru, kopuru guztiaren %85a. Horrek, argi uzten du Gasteizek hartzen duela Araban bizi diren jatorri kanpotarreko biztanleen kopuru handiena (Ikuspegi, 2020b).

Azkenik, pertsona horien jatorri nagusienak Maroko eta Kolonbia dira, Arabako jatorri kanpotarreko biztanleria osoaren %15,6a eta %15a hartuz, hurrenez hurren. Zerrendako hurrengoko 8 herrialdeen artean, 6 Hego Amerikako herrialdeak dira, beste 2 Afrikakoak, eta Asiako bakarra. Beraz, Araban ere ikus daiteke Hego Amerikako herrialdeen nagusitasuna. Hauetaz gain, beste herrialde desberdin askotako jatorria duten pertsonak bizi dira Araban, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera 104 herrialde desberdinetako pertsonak (Ikuspegi, 2021b).

2.3. Atzerritarren ondorengo diren gazteak

Aurretik aipatutako datuak beste herrialde batetik EAera emigratu duten pertsonak barne hartzen dituzte, baina horietaz gain, pertsona hauen ondorengo diren gazteak ere kontuan hartu behar dira. Pertsona hauek, EAEn jaio edo umetan haien familiarekin beste herrialde batera emigratu dutenak dira, eta herrialde hartzaileko gizartearen testuinguruan hazi eta sozializatu duten arren, kasu gehienetan jatorriko herrialdeko kultura eta erlijioa mantentzen jarraitzen dute familia ingurutik berenganatuta.

Otero eta Mendozaren (2017) ikerketa oinarritzat hartuz, atzerritarren ondorengo diren gazteak, 0 eta 24 urte dituzten, eta bere gurasoetako bat gutxienez etorkina duten pertsonak dira. EAEn, guztira, ezaugarri hauek betetzen zituzten 76.000 pertsona inguru zeuden 2017. urtean, eta horietatik, gehiengoak (46.609) guraso biak jatorri atzerritarrekoak zituen.

Nahiz eta kolektibo horretan EAEn jaiotakoak bakarrik aintzat hartu beharko liratekeen, atzerrian jaio direnak baina herrialde hartzaileko goiz iritsi, eta bertan sozializatu duten gazteak ere kontuan hartzen dira. EAeko datuei dagokionez, kolektibo honek, 0 eta 24 urte arteko gazte guztien %15,9a hartzen du. Horietatik, gehiengoa (%60,6a) EAEn jaiotakoak edo 4 urte baino gutxiagorekin etorritakoak dira (Otero eta Mendoza, 2017).

Haur eta gazte horiek, ingurune berrira iristen direnetik kultura berregiteko prozesu bat hasten dute, bere jatorriko kulturako elementu batzuk baztertuz beraien sustapen sozial eta pertsonalean onuragarriagoak diren beste batzuk berenganatzeko. Hala ere, familia-nukleoan beraien kultura eredu tradizionala transmititzen jarraitzen dute seme-alabei (Contreras, 2009).

Hauxe da Euskal Autonomia Erkidegoan kultura-aniztasunari dagokionez gaur egun ikus dezakegun errealitatea, gizarte maila guztietan nabaria dena. Baita hezkuntza sisteman eta haur eta gazteei bideratutako eskolaz kanpoko kirol eta aisialdi ekintzetan ere. Horregatik, ezinbestekoa zaigu egoera horren aurrean nola jokatu behar dugun jakitea, bertako biztanleriaren eta talde kultural desberdinen arteko elkarbizitza sustatuz, gutxiengoaren bereizketa eta bazterketa saihesteko.

2.4. Iritsi berriak diren gutxiengo kulturalen integrazioa. Perspektiba desberdinak

Aurretik aipatutako moduan, kultura-aniztasuna garrantzia handiko ezaugarria da gaur egungo gizartean, horren kudeaketa gaur egungo erronka handienetako bat izanik. Herrialde batetik bestera migratzen duten pertsonen fluxuak gora egin ahala, harrerako herrialdeetan jarduteko modu desberdinak hartzen dira, kultura desberdineko pertsona horien integrazioa lortzeko eta egoera kudeatzeko.

Etnia eta kulturak lurralde berean bat eginez dibertsifikatzea, immigrazioaren berehalako ondorioa da, eta hori kulturen arteko aberastasun bide bat izan daiteke, edo, aitzitik bizikidetzarekin zerikusia duten gatazken iturri. Aldaera hori, integrazioaren inguruan existitzen den kontzeptuaren arabera da. Alde batetik, harrera-herrialdeak iritsi berriak diren gutxiengo kulturalak bertako kulturari asimilatzeke helburuarekin, etorkinen jatorrizko ezaugarri kulturalak ezabatzea gerta daiteke. Bestetik, kultura desberdinetako forma kulturalak batera eboluzionatzea kultura ezberdinen elementuak bilduz (Lleixá eta Soler, 2004).

Integrazio filosofia desberdinei dagokionez, harrera-herrialdeetan egiten den bereizketarik ohikoena integrazio-politiken eta asimilazio-politiken artean egiten dena da. Testuinguru horretan, integrazioa honela definitu daiteke: “talde minoritario bat harrera-gizarte batera egokitzeko prozesua da, honi eskubide eta tratamendu berdintsua emanez”. Asimilazio terminoa, bestalde, harrera-gizarteak gutxiengo etnikoaren eta etorkinen kulturak eta ohiturak “xurgatzen” dituen erabiltzen da (Henry, 2009).

Flecharen eta Puigberten (2002, Floresek aipatuta, 2009), Molinaren (2010) eta Contrerasen (2009) ikerlanetan azaltzen den moduan, kultura desberdinen bizikidetzak existitzen den lekuetan hiru ikuspegi desberdin egon daitezke:

- Ikuspegi *etnozentrikoa* edo *asimilazionista*: kultura batzuk beste batzuen gainetik daudela defendatzen du, eta, beraz, batzuek besteen mende egon behar dutela, edo, bestela asimilatu eta desagertu behar direla.

Gure kulturara ohituta gaudenez, existitzen den ia bakarra dela, eta kultura “naturala” dela uste dugu, besteak egiten dutena arrarotzat hartuz. Horregatik, ideia hori jarraituz besteek gure kultura berenganatu behar dutela, gu bezalakoak izan behar direla eta, hortaz, asimiliatu behar direla hautematen da.

- Ikuspegi *erlatibista* edo *kultur-anitza*: Ikuspegi honek hainbat kultura desberdin daudela eta hauek alderatzea ezinezkoa dela onartzen du, ez dagoelako kultura hoberik edo okerragorik. Kultura bakoitza inguratzen gaituen mundua interpretatzeko

eta kolektibo gisa kohesionatzeko modua da. Hala eta guztiz ere, ikuspegi honek ez du zertan barne hartzen kultura horien artean komunikaziorik eta kontakturik egotea, eta beraz segregazioa bezalako egoerak justifikatu ditzake.

- Ikuspegi *komunikatiboa* edo *kulturartekotasuna*: kulturen arteko bizikidetzeta eta nahasketa posiblea dela defendatzen du, kultura elementu desberdinak dituzten pertsonen eta gizarteen arteko komunikazioa, negoziazioa eta elkarrizketa aurrera eramanez.

Perspektiba hauek kontuan hartuta, esan daiteke ikuspegi asimilazionistak eta erlatibistak kulturen arteko bereizketara eramaten dutela, isolamendu kulturala dakarren harreman eta trukeen gabezia sortuz (Contreras, 2009).

Gainera, Henryren (2009) arabera, asimilazioaren kasuan, atzeritar jatorriko kultura taldeek beraien kultura ezaugarriak pixkanaka galduz eta harrera-gizarteko kultura-arau nagusiak hartuz doazen heinean, akulturazioa gertatzen da.

Ikuspegi hauek ez dute kultura desberdinen integrazioa errazten, horregatik kulturarteko ikuspegian arreta jarri beharko genuke, kultura desberdinen arteko komunikazioa, negoziazioa eta elkarrizketa bultzatzen baititu (Molina, 2010).

2.5. Kulturartekotasuna helburu

Garrantzitsua da immigrazioa jasotzen duten herrialdeetan hausnarketa sakona egitea kultura-aniztasun hori kudeatzeko eredurik egokiena zein den erabakitzeke, eta hori erronka handia da. Izan ere, erronka horretan gure herrialdeetako etorkizuneko bizikidetzeta dugu jokoan eta aitortu behar dugu gaur egun errealitate den aniztasun hori garapen pertsonal eta sozialerako potentzia handia ekar dezakeela, baina, aldi berean, gatazken iturri ere izan daitekeela hainbat faktoreengatik; hala nola, bizikidetzeta arazoak edo jarrera arrazista eta xenofoboaren areagotzea (Balibrea et al., 2009). Hori dela eta, kultura desberdinen arteko elkarrekintza, errespetua eta ezagutza oinarri bezala dituen eredu bat hautatzea ezinbestekoa da.

Etxaguek (2009) aipatzen duen moduan, kultura, gizarte taldeen arazoei erantzuten dien sorkuntza dinamiko da, eta dinamismo horren ondorioz, harremanetan dauden kulturak nahastu egiten dira, elkar ukitzen dute eta trukeak gertatzen dira. Egoera horri kulturartekotasuna deritzogu, eta truke aberasgarri, positibo eta onuragarria da kultura talde bakoitza osatzen duten herritar guztientzat, haien kulturarekin antzemateko eta gainerako taldeak identifikatzeko aukera eskaintzen dielako. Kulturen arteko egoera hori, beraz, aberasgarritzat jotzen da gizartearentzat eta hori osatzen duten kide bakoitzarentzat.

Gizarte bizikidetzan oinarrituz gero, kulturartekotasuna aniztasunaren errespetuarekin, bizikidetzak baketsuarekin eta truke aberasgarriekin konprometitutako jarrera sozial aktiboaren emaitza da. Baina gizarte kultur-anitz batetik, kulturarteko gizarte batera igarotzeko, beharrezkoa da integrazio eredu dinamikoak definitzea, gizarte bateko kideek bizikidetzak baketsua eta hezigarria izan dezaten. Hori dela eta, integrazioa, kulturartekotasuna eta horrek dakarren hezkuntza inplikazioak erronka pedagogiko garrantzitsuenetakoa da gaur egun (Etxague, 2009).

Kultur-aniztasuna, kulturartekotasunarekin ez nahastea garrantzitsua da. Izan ere, kultur-aniztasuna espazio berean jatorri desberdineko pertsonak elkarrekin bizi diren unetik datorkigun gertaera da, eta kulturartekotasuna, aldiz, ekintza boluntarioa eskatzen duen fenomeno da, inplikaturako pertsonak benetako integrazioa bilatzeko bideratzen duten mugimendua (Medina, 2001, Balibrea et al., 2009-ek aipatuta).

Bi kontzeptu hauen arteko desberdintasunak zeintzuk diren jakiteko erreferentziatzat hartuko dira Etxaguek (2009) azaltzen dituen ezaugarriak:

Kultur-aniztasuna	Kulturartekotasuna
<ul style="list-style-type: none"> • Berez existitzen den egoera bat da. • Kultura desberdinen baterako existentzia egiaztatzen du eta onartzen du. • Kultura guztiak balioesten ditu. • Talde guztien garapen kulturala lortzen saiatzen da. • Talde kultural bakoitzaren garapen autonomoa bultzatzen du. • Talde kultural bakoitzak dituen mugak errespetatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura ezberdinen arteko elkarrizketan sinisten du. • Komunikazioa eta elkartrukea sustatzen du. • Kultur taldeen koexistentzia soila gainditzea du helburu. • Talde eta kultura guztietara zuzenduta dago. • Norberaren nortasunaren garapena positiboki balioesten du, eta gainerako kulturen ezagutza eta trukera zabaltzen du. • Pertsonen eta ikasleen bizitzaren ezaugarri den ekintza dinamiko gisa agertzen da eta inoiz amaitzen ez den bizitza proiektua da. • Kultura guztien balioa aitortzeaz gain, haien arteko elkarrizketa eta trukea eskatzen ditu. • Topaketa, komunikazioa eta trukea behartzen dituen osagai metodologiko bat du.

2.6. Kulturarteko topaguneak

Kulturartekotasun printzipioan oinarrituz, talde kultural desberdinetako pertsonen arteko harremanak gertatu ahal izateko, beharrezkoa da aztertzea zein espazio eta jardueretan egiten duten bat pertsona horiek.

Arnaiz eta De Haroren (2004) arabera, kulturarteko herritartasuna gauzatzeko, beharrezkoa da gizakiak ikaskuntza-prozesu konplexuetan inplikatzeko, eta, horregatik, hezkuntza-erakundeak funtsezko tresna bihurtzen dira hori lortzeko, familia-ingurunearekin batera sozializazio iturri esanguratsuenetako bat baitira.

Eskola gizartearen isla dela esaten da, eta horregatik gure hezkuntza-sisteman ere kultur-aniztasun geroz eta handiagoa ikusten da. Hori dela eta, eskola, jatorri kultural desberdineko ikasleen arteko topagune bihurtzen da, eta Etxaguek (2009) baieztatzen duen moduan, horri esker eskola kulturarteko espazioa da. Ikasle bakoitzak bere nortasun kulturalaren zati handi bat partekatzen du beste ikasle batzuekin, eta guztien artean talde kultural bereziak osatzen dituzte.

Hezkuntza-sisteman bezala, haur eta gazteek aisialdian praktikatzen dituzten kirol eta aisialdi jardueretan ere ikus daiteke kultura desberdineko pertsonen arteko topagunea. Beraz, kirol ekintzetan gertatzen diren harremanetan arreta jartzea garrantzitsua da ere.

2.7. Kirola eta kulturartekotasuna

Balibrea et al. (2009) aipatzen duten moduan, kulturartekotasunaren erronkaren aurrean, kirola tresna pribilegiatua izan daiteke. Kirolaren arau komun eta unibertsalek neurri handi batean erraztu dezaketelako hizkuntza, erlijio eta kultura desberdina duten pertsonen arteko harremanak.

Kirolak, eta batez ere taldean jokatzen denean, jatorri kultural atzerritarreko pertsonen integrazioan lagundu dezake, bai helduaroan, baita gaztaroan ere. Baina hori lortzeko, batzuetan kirolaren zenbait balio inplizitu mugatu behar dira, hala nola garaipenaren gehiegizko bilaketa, errendimendua nagusitzea eta arauen errespetu falta. Horregatik, garrantzitsua da kirola praktikatzeko orduan balio positiboetan hezitzea eta pertsonen arteko harremanak hobetzen saiatzea (Ortí, 2004).

Horrez gain, Ortík (2004) azpimarratzen du eskola-kirolak aukera zabalak eskaintzen dituela kulturarteko hezkuntzari lotutako helburuak lortzeko, hala nola, tolerantzia, errespetua, kultura desberdinen arteko onarpena eta abar.

Jiménezen et al. (2009) ikerketan ere ideia hau azpimarratzen da: “jarduera fisikoa eta kirola tresna pribilegiatuak izan daitezke etorkinak harrera-gizarteetan integratzeko eta gizarteratzeko prozesuan. Jarduera hauek dituzten arau komun eta unibertsalak oso lagungarriak dira etorkinen eta bertakoen arteko harremanak errazteko, hasiera-hasieratik hizkuntza-hesia gaindituz”.

Horren harira, adierazgarria da Lleixák (2004) kirolaren funtzio sozializatzailearen inguruan egiten duen hausnarketa. Horretan azaltzen duenez, gizarteak aldaketak eta dibertsifikazioak sortzen dituen etengabeko bilakaera pairatzen ari da. Horregatik, kirolaren bidez bertakoak eta etorkinak ekarrekin sozializatzearen ideia kontuan hartu behar da.

Baina horretarako hainbat ezaugarri kontuan hartu behar dira kirola praktikatzeko: Kirol praktikak, gizarteak egin behar duen bezala, aldaketak onartu behar ditu, eta aldaketa horiek kirola praktikatzeko duten pertsona guztien beharrei erantzun behar diete. Horrez gain, kirol eskaintza dibertsifikatu behar da pertsona guztientzat eskuragarri izateko. Azkenik, arauak eta jokatzeko-estiloak praktikatzeko dutenen interes bateratuetara egokitu behar dira (Lleixá, 2004).

Horren ondorioz, Lleixak (2004) sozializazio partekatua ahalbidetzen duen kirol-jarduera batek honako gidalerroak jarraitu behar dituela azaltzen du:

- Jardueren programa dibertsifikatzea, bakoitzak kirolari ematen dion esanahietara egokitu ahal izateko.
- Kirol praktikaren inguruan sor daitezkeen gizarte eta harreman itxaropenei erantzutea.
- Kulturartekotasunarekiko jarrera positiboak sustatzea.
- Jarrera kooperatibo eta solidarioak goraipatzea.
- Aurreiritziak eta estereotipoak eragotzi.
- Pertsonaren nortasuna eraikitzen laguntzeko mekanismoak barneratzea.

Aurretik aipatutako moduan, kirol-jarduerak arau komun eta unibertsalak dituzte ezaugarritzat. Hau da, kirola praktikatzeko momentuan, parte hartzen duten guztiek arau eta helburu berdinen arabera jokatzeko dute.

Futbolaren kasuan, mundu osotik ezaguna den kirola bihurtu da, kultura desberdin askok berenganatutako praktika delako. Kalkuluen arabera, gaur egun 240 milioi pertsonak futbola praktikatzeko dute, eta 1,5 milioi futbol klub baino gehiago existitzen dira (Robertson eta Giulianotti, 2006). Bere izaera unibertsalak mundu osoan ezagutua izatea eta edozein lekutan jokatu izatea eragiten du. Hori dela eta, gure gizartera etorri berria den edozein kulturako pertsona batek kirol honen arauak ezagutu ditzake (Flores, 2009).

Hori kontuan hartuta, eta aurreko gidalerroak jarraituz, futbola bezala izaera unibertsala duten talde kirolen praktika sustatzea tresna oso baliagarria dirudi kultura desberdineko pertsonen elkartzea eta harremanak gertatzeko.

3. METODOLOGIA

3.1. Helburuak eta hipotesiak

Kulturartekotasuna garrantzi handiko gaia da gaur egungo gizartean, herritarren artean existitzen den kultur-aniztasuna handia baita. Errealitate horrek gizarteko esparru guztietan eragina duenez, baita eskola garaian eta gaztaroan ere, garrantzitsua da txikitatik kultura desberdineko pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa sustatzea.

Hori lortzeko jarduera fisikoa eta kirola tresna oso baliagarriak izan daitezke etorkinak harrera-gizarteetan integratzeko eta gizarteratzeko prozesuan, eta kultura desberdinetako pertsonen arteko harremanak errazteko.

Hori dela eta, lan honen **helburu nagusia** honako hau da:

- “Futbolaren praktikaren bitartez kultura desberdinetako pertsonen arteko harremanak, komunikazioa eta ezagutza sustatzen den aztertzea”.

Helburu nagusi horretatik abiatuta, hauek dira lan honetako **helburu espezifikoak**:

- Kulturartekotasunari dagokionez, Gasteizko futbol taldeetan dagoen errealitatea ezagutzea.
- Gasteizko futbol taldeetan kultur-aniztasuna existitzen den aztertzea.
- Emakumezko eta gizonezko futbolaren artean kultur-aniztasunari dagokionez egon daitezkeen desberdintasunak aztertzea.
- Haurtzaroan eta gaztaroan futbola taldean praktikatzeko kultura desberdineko pertsonen arteko harremanak emateko baliabide baliagarria den jakitea, Gasteizen futbola praktikatzeko duten pertsonen esperientzia eta iritzitik abiatuz.

Hipotesiak:

- Futbola praktikatzeko kultura desberdinetako pertsonentzako elkargunea suposatzen du, hauen arteko harremanak eta ezagutza erraztuz.
- Haurtzaroan eta gaztaroan futbola taldean praktikatzeko kultura desberdineko pertsonen arteko harremanak sortzeko baliabide baliagarria da eta pertsona horiengan esperientzia positiboak sortzen ditu.

- Gasteizko auzo eta ikastetxe publiko gehienetako futbol taldeetan kultur-aniztasun nabarmena dago. Itunpeko ikastetxeetako taldeetan berriz ez dago hainbeste kultur-aniztasun.
- Kultura-aniztasun handiagoa dago gizonezkoen futboleko emakumezkoen futboleko baino.

3.2. Erabilitako metodoa

Alde batetik, lan honetan jorratzen den gaia sakonago ezagutzeko, ikerketa sozio-historikoa egin da. Horretarako, gaien adituak diren hainbat egileren argitalpenak erabili dira informazioa biltzeko, hala nola liburuak, aldizkarietako artikulak edo lan akademikoak. Analisi sozio-historiko horren emaitza aurretik azaldutako marko teorikoa izan da, eta, gainera, aurrerago azalduko diren ondorioetan sakontzeko balio izan du.

Bestalde, ikerketaren alde praktikoari dagokionez, ikerketa kualitatiboa burutu da. Futbola eta kulturartekotasunaren loturak aztertzeko, futboleko jokatzen duten pertsonen zuzendutako galdetegi egituratu bat sortu da, hauen esperientzia eta iritziak ezagutzeko helburuarekin.

Ikerlan honen atal praktikoa aurrera eramateko erabili den metodoa azaltzeko hurrengoko kategoriak sortu dira:

- **Informazioa jasotzeko tresnak**

Ikerketako datu eta informazio biltzeko burutzeko, Gasteizen futbola praktikatzeko duten pertsonen bideratutako galdetegi egituratuak erabili dira (ikus 1. eta 2. eranskinak).

Guztira 16 galdera dituen galdetegia da, eta horien artean pertsona horien ezaugarri pertsonalen inguruko galderak (sexua, jaioterria eta futboleko jokatzen hasi zirenekin), futbol-praktikari dagokionez bizitzan zehar izandako esperientziaren inguruko galderak, eta bakoitzaren iritzi pertsonalaren inguruko galderak aurki daitezke.

Datu kualitatiboak lortzea izan da helburua, horregatik galdera gehienak esaldi laburrekin erantzun beharrekoak dira, pertsona horien iritzia eta ikuspegia era esanguratsu batean biltzeko.

Erabilitako hizkuntzari dagokionez, galdetegia gaztelaniaz egitea erabaki izan da. Galdetegia erantzuten duen orok ulertuko duen hizkuntza izateaz gain, oro har, galderak ulertzeko eta erantzunak garatzeko hizkuntza egokiena dela uste izan da.

- **Galdetegia zabaltzeko prozedura:**

Galdetegia diseinatzeko eta prestatzeko erabili den aplikazioa “Google Forms” izan da. Tresna hori erabiltzea erabaki da, “smartphone” edo ordenagailua duen pertsona ororentzat eskuragarria, erraza eta argia delako. Gainera, galdetegiaren esteka digitala sor daitekeenez, sare sozialen eta mezularitzako aplikazioen bidez bidaltzeko aukera ematen digu (“Whatsapp”, adibidez). Modu horretan, errazagoa da galdetegia zabaltzea eta ahalik eta jende gehiagorengana iristea.

Horrez gain, eskaintzen duen galdetegi formatua argia, bisuala eta dinamikoa da, eta erantzuten duen pertsonarentzat erraza da erantzutea eta emaitzak bidaltzea.

Galdetegia Gasteizko futbol-klubetan zabaltzeko, telefonoz eta sare sozialen bidez klubetako koordinatzaileekin, entrenatzaileekin eta jokalariekin jarri zen harremanetan, eta galdetegiaren esteka bidali zitzaizen klubetako jokalarien artean zabal zezaten.

“WhatsApp” eta “Instagram” sare sozialen bidez lortu zen zabalkuntza egitea, hori dela eta, galdetegia, aplikazio horiek dituzten gazte eta helduei zuzenduta dago. Gaur egun pertsona gehienek aplikazio horiek erabiltzen dituztenez, erraza izan da zabalkuntza burutzea.

- **Lagina eta parte-hartzaileak:**

Ikerketan, Gasteizko futbol taldeetan jokatzen duten edo jokatu duten pertsonak parte hartu dute, eta guztira 105 erantzun jaso dira.

Erantzun gehienak klub hauetan jokatzen duten jokalarienak izan dira, hango jokalaria, entrenatzaile eta koordinatzaileekin harremanetan jarri ondoren. Hauek dira erantzun gehien eman dituzten klubak:

- San Martin auzoko bi klub; San Martin CDF eta Hauskaitz KK, gizonezko taldeak eta emakumezko taldeak.
- Santa Lucía auzoko kluba; Iru Bat. Gizonezko taldea.
- Lakua auzoko kluba; CD Lakua. Emakumezko taldea.
- Olabide ikastolako taldea; Urgatzi. Itunpeko ikastola da. Ikasleek ikastolako futbol taldean jokatzen dute.

4. EMAITZAK

Atal honetan galdetegiaren bidez lortutako emaitzak aztertuko dira, horretarako, eskuratutako daturik adierazgarrienak hurrengo kategorietan sailkatuz.

- **Generoa**


Gizonezko eta emakumezko futbolaren arteko desberdintasunak egon daitezke hainbat alderdietan, kultur-aniztasuna horietako bat izanik. Horregatik, galdetegiko lehenengo galdera (ikus 1. eranskina) erantzuten duen pertsonaren generoa zehaztea du helburu.

Galdetegia bete duten 105 pertsonetatik, 34 (%32,4) emakumeak izan dira, 69 (%65,7) gizonak eta generoa zehaztu ez duten 2 pertsona.

Emakumeak: 34 erantzun (%32,4)

Gizonak: 69 erantzun (%65,7)

Nahiago dut ez esatea: 2 erantzun (%1,9)



1. *Grafikoa.* Galdetegiko lehenengo galderaren emaitzak.

- **Kultur-aniztasuna**

Galdetegiaren helburuetako bat jatorri atzerritarreko pertsonak gai honekiko duten ikuspegia ezagutzea da, baita gizartean dagoen kultur-aniztasuna Gasteizko futbol taldeetan islatzen den jakitea ere.

Hori dela eta, galdetegiko 2. eta 3. galderen bidez (ikus 1. eranskina), erantzuten duten pertsonen eta haien familien jatorria ezagutu nahi izan da.

Bi galdera horietan lortutako erantzunei erreparatuz, galdetegia bete duten pertsonen %87,6a Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainian jaio da, eta %11,4a beste herrialde batean. Atzerriko herrialde horien artean Maroko, Frantzia, Senegal, Dominikar Errepublika, Ukraina, Peru, Bolivia, Alemania, Venezuela, Sahara eta Kamerun daude.


Horretaz gain, EAEn edo Espainian jaiotakoen artean badaude haien gurasoetako bat edo biak beste herrialde batekoak direnak. Hauen artean, aurretik aipatutako herrialdeetaz gain, beste herrialde desberdin batzuk aurki ditzakegu, hala nola, Egipto, Argentina eta Kolonbia.

Garrantzitsua da azpimarratzea bi galdera hauetan ez dela jatorri kanpotarreko, edo guraso kanpotarrak dituen emakumeen erantzunik lortu. Galdetegia bete duten emakume guztiak EAEn edo Espainiako beste autonomia-erkidego batean jaiok dira.

- **Futbolaren bidezko sozializazioa**

Futbola bezalako talde kirol-jarduerak pertsonen arteko harremanak sortzeko tresna baliagarria den ala ez aztertzeko, galdetegiko 7. eta 9. galderetan jasotako erantzunei erreparatu behar diegu.

Futbola praktikatzea, pertsonak ezagutzeko eta lagun berriak egiteko modu oso baliagarria bezala ikusten dute erantzun duten pertsona gehienek. Hurrengo grafikoan ikus daiteke 5 zenbakiarekin erantzun dutela %74,3ak (1 zenbakia gutxi, 5 zenbakia asko).



2. *Grafikoa.* Galdetegiko 7. galderaren emaitzak.

Horrez gain, galdetegia bete duten pertsonen %92,3aren ustez futbolaren bidez adiskidetasun handiak egin dituzte, eta beste batzuk haien lagunik hoberenak futboleant jokatzen ezagutu dituztela baieztatzen dute. Horren adibide dira erantzun hauek (ikus 2.eranskina, galdetegan lortutako erantzunak):

- "Zalantzarik gabe, nire zirkulu hurbila futbolari esker ezagutu dut."
- "Bai, Euskadira heltzean nire lagunak futbol klub batean ezagutu nituen."


Klub batean futboleant jolastan hasteko adinari dagokionez, galdetegia bete duten pertsona gehienak haurtzaroan hasi ziren. Erantzun guztien batz bestekoa eginez gero, 8 urterekin hasi ziren (ikus 2. eranskineko 4. galdera).

Azkenik, galdetegiko 14. eta 15. galderetan lortutako erantzunetan arreta jartzen badugu (ikus 2. eranskina), futbol ingurua eta futbola praktikatzen duten pertsonen jarrera errespetuzkoa izan ohi da kultur-aniztasunari dagokionez. Hala ere, batzuek dioten moduan, nahiz eta gehienetan errespetuzko giroa izaten den, lehiatzeko orduan jarrera diskriminatzaileak edo errespetu faltak entrenamenduetan baino ohikoagoak dira tentsioaren igoeraren ondorioz.

- **Kultur arteko sozializazioa**

Futbol taldeetan kultura desberdineko pertsonen arteko harremanak dauden ala ez frogatzea izan da galdetegi honetan aztertu nahi izan den ideia nagusia. Horretarako, galdetegiko 8. galderatik aurrera (ikus 1. eranskina) honen inguruan informazioa biltzea bilatu da, eta hauek dira lortu diren emaitzak:

Hurrengo grafikoan, galdetegiko 8. galderan jasotako erantzunak adierazten dira (ikus 2. eranskina). Ikus daiteke pertsona gehienek 4 eta 5 (asko) markatu dutela. Hau da, futbola praktikatzeari esker, kultura, etnia edo jatorri desberdineko pertsonak ezagutu dituzte. Gutxi batzuk izan dira 1 eta 2 (gutxi edo ezer) erantzun dutenak. Hauek ez dute kultura eta etnia desberdineko beste pertsonak ezagutu futbola praktikatzeari esker.



3. *Grafikoa.* Galdetegiko 8. galderaren emaitzak.

1 edo 2 erantzun duten pertsonen artean, datu adierazgarri bat atera daiteke, pertsona horiek galdetegiko beste galdera batzuetan erantzun dutenarekin lotzen badugu. Hauetako batzuk, 6. galderan (ikus 1. eranskina), ikasi duten ikastetxeko futbol klubean bakarrik jokatu dutela erantzun dute.

Horrez gain, 10, 11 eta 12. galderetan (ikus 1. eranskina), pertsona horiek honekin zerikusia duten erantzun adierazgarriak eman dituzte (ikus 2. eranskina):

- “Ez, guztiok ikastolakoak gara.” (Olabide ikastolakoak)
- “Bai, ikastetxeetatik kanpoko klubetan aniztasun etniko handiagoa dago, jendeak kultura berriekin harremanak izan ditzan lagunduz.”
- “Ez, beti jokatu dut nire ikastetxeko taldean.”

Pertsona gehienek adierazi duten moduan, futbola kulturartekotasuna sustatzeko tresna erabilgarritzat jotzen dute (11. galdera), eta aurretik aipatutako erantzunen ostera, pertsona ugari jatorri kultural desberdineko pertsonekin adiskidetasun handiak egin dituzte, horri esker

kultura horietako ohitura eta ezaugarriak ikasiz. Horren adibide dira 12. eta 13. galderetako erantzun hauek (ikus 2. eranskina):

- “Bai, islamari buruz asko ikasi dut musulmanekin jokatzeari esker. Ramadanaren funtzionamendua ikasi dut, adibidez.”
- “Bai, erabat. Familia musulman batekin Ramadan afari batean egoteraino.”
- “Bai, futbolarik euskal kulturara egokitzen lagundu dit, nire jatorriko kulturaren aldean guztiz desberdina baita.” (Venezuelako mutil baten erantzuna)

Azkenik, galdetegian lortutako emaitzekin bukatzeko, erantzun duten 105 pertsonetatik gehiengoak esperientzia positiboak izan ditu futbola praktikatzeko, eta jatorri kultural desberdineko pertsonekin harremanak sortzeko baliagarria izan da esperientzia hori. Galdetegiko azken galderako erantzunak hori baieztatzen dute:

- “Hala da. Futbolarik, beste talde-kirol askok bezala, inguruko pertsonen errealitateak ulertzen laguntzen dizkiguten balio positiboak eta integrazio kulturala sustatzen dituela uste dut.”
- “Bai, ia komunikaziorik gabe besteekiko harremana sendotzea lortzen duzun espazioa eta egoera da, eta hori kirolaz kanpoko edo testuinguru horretatik kanpoko egoeretara eramaten da.”

5. ONDORIOAK

Galdetegian lortutako emaitzak aztertu ondoren, eta atal praktikoaren hasieran garatutako hipotesiak kontuan hartuta, hauek dira ikerketatik ateratako ondorioak.

Lehenengo hipotesian, futbolarik praktika kultural desberdinetako pertsonentzako elkargunea dela eta hauen arteko harremanak errazten dituela adierazten da, eta galdetegian lortutako emaitzak aztertu ondoren hau baieztatu daiteke hainbat arrazoiengatik.

Bernabék (2012) aipatzen duen moduan, gizarteak kulturen arteko errespetuaren bidean aurrera egin dezan, kulturen arteko prozesuak sustatu behar dira, herrialdean dauden kultura ezberdinen arteko topaketak eta hartu-emanak ahalbidetzeko. Prozesu horietan ezinbestekoa da bertako biztanleak zein atzeritarrek parte hartzea, hori dela eta futbolarik praktikatzeko baliabide aproposa da eta ikerketan lortutako emaitzek frogatzen dute.

Galdetegian parte hartu duten pertsonen jatorri kulturean oinarrituz, erantzun desberdinak aurki ditzakegu. Galdetegia bete duten pertsona gehienak (%87,6) Euskal Autonomia Erkidegoan jaio dira, baina gainerako pertsonak (%11,4) honako herrialdeetan jaio dira edo haien gurasoak hangoak dira: Maroko, Frantzia, Senegal, Dominikar Errepublika, Ukraina,

Peru, Bolivia, Alemania, Venezuela, Sahara, Kamerun, Egipto, Argentina eta Kolonbia. Datu hauen bidez egiazta daiteke Gasteizko futbol taldeetan kultur-aniztasuna existitzen dela, eta kultura desberdineko pertsonen arteko topagunea dela.

Baina lan honetan zehar hainbat aldiz azaldutako moduan, kulturartekotasuna, kultura desberdineko pertsonen koexistentzia soiletik haratago doa, pertsona horien arteko harremana eta trukea bilatzen du eta galdetegiaren bidez hori gertatzen den ala ez frogatu nahi izan da.

Futbola praktikatzea kulturen arteko zubiak ezartzeko eta kultura horiek ezagutzeko baliagarria izan zaiela aipatu dute %73,4ak (2. eranskina, 12. galdera); eta emaitzetako 3. grafikoak adierazten duen moduan, futbola praktikatzeari esker kultura, etnia edo jatorri desberdineko pertsonak ezagutu dituzte pertsona gehienak.

Horri esker, kasu batzuetan adiskidetasuna sortu da kultura desberdinetako kideen artean, eta beste kultura horri buruz ikasteko aukera izan dute. Horren adibide dira lortutako erantzun batzuk, kultura desberdineko pertsonekin izandako elkarrekintza horri esker islamaren arauak eta ezaugarriak ikasi ahal izan dituztela adierazten dutenak.

Bigarren hipotesiari erreparatuz, haurtzaroan eta gaztaroan futbola bezalako talde-kirola praktikatzea kultura desberdineko pertsonen arteko harremanak sortzeko baliabide baliagarria dela baieztatu daiteke.

Hasteko, futbola praktikatzea haurrek eta gazteek euren artean sozializatzeko eta jende berria ezagutzeko modu bikaina dela frogatu da. Bildutako datuen arabera, futbola taldean praktikatzen hasteko batzuetan besteko adina 8 urte ingurukoa da, beraz, eskola-adinean hasten dira pertsona gehienak. Horrez gain, futbola praktikatzea jende berria ezagutzeko eta lagunak egiteko era oso baliagarria bezala ikusten dute galdetegia bete duten pertsonen %74,3ak, beraz, pertsona horietako gehienak haurtzarotik izan dute harremana jatorri kultural desberdineko beste pertsonekin.

Hirugarren hipotesian, futbol taldearen ezaugarrien arabera kultur-aniztasun handiagoa edo txikiagoa egon daitekeela azaltzen da. Auzoetako edo ikastetxe publikoetako futbol taldeetan, itunpeko eskoletako taldeetan baino kultur-aniztasun handiagoa existitzen dela uste da. Ikerketa burutu ondoren, hipotesi hau egiazta daiteke.

Izan ere, jatorri atzerritarreko familiak ez dira berdin banatzen hiri eta auzoetan, eta gauza bera gertatzen da ikastetxeetako ikasleekin. Desoreka handia dago hezkuntza publikoaren eta itunpeko hezkuntzaren artean (Goenechea, 2016).

Ikasle atzerritarrek presentzia handia dute eskola publikoetan, hauetako hamarretik zortzi ikasten dute ikastetxe hauetan. Bertakoak diren ikasleen artean, berriz, banatuagoa dago, eta proportzioan, hezkuntza publikoan duten presentzia ikasle atzerritarrena baino txikiagoa da (Goenechea, 2016).

Banaketa desberdin horren arrazoiak kultura, ekonomia eta bizileku faktoreak izango lirateke, bai eta administrazio publikoak hezkuntza-politiken bidez eragindakoak ere (García eta Rubio, 2013; Lubiánek aipatua, 2016).

Emaitzen atalean aipatutako moduan, beren eskolako futbol taldean (itunpeko eskola batekoa) bakarrik jokatu duten pertsona batzuen erantzunak kontuan hartuta, itunpeko eskoletako futbol taldeetan, beste batzuetan baino kultur-aniztasun txikiagoa dago. Hauetako batzuk ez dute jatorri kultural desberdineko pertsonekin topo egin futbola praktikatzeko orduan.

Azken hipotesiari dagokionez, nahiz eta galdetegia emakume-talde desberdinetan jokaten duten neska askok bete duten, ezin izan da jatorri kultural atzerritarreko jokalarien erantzunik jaso. Horrek erakusten du kultur-aniztasun txikiagoa egon daitekeela emakumezkoen taldeetan gizonezko taldeetan baino.

Gaur egun, oraindik ere badira oztopo batzuk emakumeak kirol-jardueretan parte-hartzea zailtzen dutenak. Kultura bakoitzeko balio erlijiosoek, arauak eta praktika tradizionalak eragina dute emakumeen eguneroko bizitzan, aisialdian eta kirolean parte hartzean, baita beste herrialde batera migratu ondoren pentsamendu eta jokabide jarraibideak aldatu badira ere (Pfister, 2004).

Oztopo horiengatik, eta azken urteotan emakumezkoen futbolak aurrerapen handia izan duen arren, gizonek futbolean duten parte-hartzea emakumeena baino handiagoa izaten jarraitzen du, eta kultur-aniztasun handiagoa dago gizonezko taldeetan, emakumezko taldeetan baino.

Hala ere, galdetegia bete duten emakumeen erantzunak aztertuz gero, gehienek beste kultura batzuetako pertsonak ezagutu dituzte futbola praktikatzeari esker, beraz azken hipotesi hau ez da guztiz egiaztatu.

Amaitzeko, eta azaldutako guztia kontuan hartuta, aurretik aipatutako helburu nagusia betetzea lortu da. Ikerketako emaitzak aztertu ostean, baieztatu daiteke futbolaren praktika, jatorri kultural desberdineko pertsonen arteko harremanak sortzeko tresna oso baliagarria izan daitekeela. Hori dela eta, ezinbestekoa zaigu futbola bezalako talde-praktikak sustatzea, batez ere haur eta gazteen artean, jatorri kultural desberdineko pertsonen arteko harremanak bideratzeko agertoki bikaina delako.

Baina hori lortzeko, beharrezkoa da futbol klub guztietan kultur-aniztasuna bermatzea, eta aurretik aipatutako moduan, badaude jokalarien artean homogeneousitasun handia daukaten taldeak, batez ere itunpeko eskoletako taldeetan. Horregatik, futbol talde guztietan kultur-aniztasuna sustatzeko bi modu proposatzen dira.

Alde batetik, aurretik aipatutako moduan, familia bakoitzak dituen ezaugarri kultural, ekonomiko eta sozialak direla eta, ezinezkoa da gaur egun ikastetxe batzuetan kultur-aniztasuna ziurtatzea. Hori dela eta, zaila izaten da ikastetxean egiten diren eskolaz kanpoko ekintzetan eta kirol jardueretan ere aniztasun hori ikustea.

Horregatik, nahiz eta kasu gutxietan gertatzen den, ikastetxe horietako futbol taldeetan eta kirol-jardueretan, ikastetxean ikasten ez duten hurrei jokatzeko aukera emanez gero, baliteke ikastetxearen ingurutik bizi diren ume batzuk ekintza horietan izen ematea, eta hauen artean jatorri kultural kanpotarreko umeak egon daitezke.

Bestalde, itunpeko ikastetxeak ez diren futbol klubetan kultur-aniztasun handiagoa ikus daiteke. Horregatik, hurrei kultura desberdinekin elkarbizitzen irakatsi, eta kulturartekotasunarekin lotutako balioak irakatsi behar dizkiegula uste badugu, ideia ona izango litzateke familiak animatzea seme-alabak kultur-aniztasuna daukaten futbol klubetan izen emateko.

6. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honetan zehar kulturartekotasunaren gaia, eta horrek kirolarekin duen lotura aztertu da. Gai honen zabaltasuna kontuan hartuta, atal teorikoa egiterakoan zaila izan da kontzeptu zehatz batzuetan zentratzea. Hori dela eta, kulturartekotasunaren nondik-norakoak azaldu dira, eta kirolaren bidez errealitate horrek dakarzkigun erronkak gainditu daitezkeen aztertu da.

Egindako ikerketaren oinarria futbolaren praktika izan da, gaur egun, hezkuntza arloan, eta bereziki gorputz hezkuntzan, polemika eta ospe txarra ekar dezakeen kirola, honetan dagoen lehiakortasuna, eta ikasleek kirol honekiko izan dezaketen motibazio ezberdina dela eta. Horregatik, zailtasunak egon dira honen inguruko ikuspegia erabakitzeko orduan.

Horrez gain, nahiz eta kirola eta kulturartekotasuna lotzen dituzten ikerlan eta argitalpen ugari dauden, futbola eta kulturartekotasuna lotzen dituztenak oso eskasak dira, beraz, zaila izan da lanean transmititu nahi ziren ideia batzuk babestea.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar futbola mundu mailan eragin handia duen talde-kirola dela, eta, horri esker, kirol hau praktikatzen duten kultura desberdin askotako pertsonak daudela, modu horretan kulturartekotasuna sustatzeko topagune ezin hobea bilakatuz.

Bestalde, lanaren atal praktikoa burutzeko erabilitako metodoa zehaztea ez zen lan erraza izan hasiera batean. Lan honen helburu nagusiaren inguruko ikerketa egiteko, futbola praktikatzen duten pertsonen esperientzia oinarritzat hartu nahi izan da, eta hori lortzeko metodorik egokiena zein den hausnartu behar izan da.

Hasierako ideia, Gasteizko futbol esparruko pertsona ugariri aurrez aurreko elkarrizketa sasi-egituratuak egitea izan zen, haien esperientzia ezagutzeko. Informazioa biltzeko modu oso baliagarria eta egokia da, baina gaur egun pandemiaren ondorioz bizi dugun egoera dela eta, zaila izan liteke pertsona batzuekin aurrez aurre geratu ahal izatea, lortutako elkarrizketa eta informazio kopurua nabarmenki murriztuz.

Hori dela eta, online galdetegi bat sortzea erabaki zen, erantzun kopuru handia lortzeko modu oso eraginkorra baita, sare sozialetan duen hedapen azkarrari esker. Hala ere, informazioa biltzeko modu honek baditu bere alde txarrak.

Galdetegia betetzen duten pertsonak era anonimoan erantzuten dutenez, kasu batzuetan ez dute ahalegin handirik egiten erantzuterakoan. Galdetegi honetako galdera askotan erantzuna garatzea bilatzen da, informazioa era kualitatiboan aztertu ahal izateko, horregatik garrantzitsua da erantzun esanguratsuak lortzea.

Hori ekiditeko, erabilitako galdera formatua alda daiteke datu adierazgarriagoak lortu ahal izateko. Idatzizko erantzunak eskatu ordez, hainbat aukera eskaini daitezke erantzun gisa, aukera bat, bi edo gehiago aukeratuz. Horrez gain, galdetegi laburragoa eta galdera konketuagoak diseinatuz gero, errazagoa izango litzateke hori betetzea. Modu horretan, gainera, datuak aztertzerakoan, argiago ikusiko lirateke.

Bukatzeko, etorkizunean pentsatuz gero, kulturartekotasuna gizartean eta hezkuntzaren arloan gero eta garrantzia handiagoa izango duen gaia da, eta hori kudeatzeko modua erronka handia. Horregatik, garrantzitsua da lan honetan egin den bezala, gai honi buruz ikertzen eta ikasten jarraitzea.

7. ERREFERENTZIAK

- Aguilar, M. J., eta Buraschi, D. (2012). El desafío de la convivencia intercultural. *REMHU: Revista Interdisciplinar da Mobilidade Humana*, 20(38), 27-43.
- Arnaiz, P. eta De Haro, R. (2004). Ciudadanía e interculturalidad: claves para la educación del siglo XXI. *Educatio* (22), 19-37. Universidad de Murcia.
- Austin, T. (2000). Para comprender el concepto de cultura. UNAP Educación y Desarrollo, 1(1), 1-11.
- Balibrea, E., Domínguez, S., Durán, L. J., Echeita, R., Gieß-Stüber, P., Henry, I., Jiménez, P. J., Clemens, L., Rato, M., Santos, A., Soler, S. (2009). Actividad física, deporte e inmigración: el reto de la interculturalidad.
- Bernabé, M. (2012). Pluriculturalidad, multiculturalidad e interculturalidad, conocimientos necesarios para la labor docente. *Hekademos*, 11, 67-76.
- Contreras, O. R. (2009). Intervención intercultural desde la Educación Física. <http://altorendimiento.com/intervencion-intercultural-desde-la-educacion-fisica/>
- Etxague, X. (2009). *Interculturalismo y diversidad. Del grupo social al aula escolar*. https://www.ehu.eus/documents/1494497/1508626/intercultur_diversidad_etxague.pdf?version=1.0
- Flores, G. (2009). Los/as entrenadores/as de fútbol educativo en contextos multiculturales Creencias y modos de atender a la diversidad. (Master amaierako lana). Universitat de Barcelona, España.
- García Martínez, A., & Sánchez Lázaro, A. M. (2012). A vueltas con las posibilidades de integración: Pluralidad, inmigración y racismo.
- Goenechea, C. (2016). La escuela pública de la España Multicultural: de privilegios y muros invisibles. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, (85), 111-119.
- Grimson, A. (2008). Diversidad y cultura. Reificación y situacionalidad. *Tabula Rasa*, (8), 45-67 <https://www.redalyc.org/pdf/396/39600803.pdf>
- Henry, I. (2009). Estrategias para la integración social a través del deporte: el uso del deporte para la integración social entre refugiados y solicitantes de asilo. In Balibrea, E., Domínguez, S., Durán, L. (ed.), Echeita, R., Gieß-Stüber, P., Henry, I., Jiménez, P. J., Ley, C., Rato, M., Santos, A., eta Soler, S, *Actividad física, deporte e inmigración: el*

- reto de la interculturalidad*. (13-32 or.). Plan de formación de la dirección general de deportes.
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2021). *EAEko biztanleria eta jatorri atzerritarra duen biztanleriaren portzentajea lurralde historikoen arabera*. 2021. Urtea. https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2021/TTHH_porcent_extr_2021_eus.pdf
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2021). *Jatorri atzerritarreko biztanleria Araban jatorriko herrialde eta sexuaren/generoaren arabera*. 2021. urtea. https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2021/alava_paisorigen_sex02021eus.pdf
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2020). *Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn 2020*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan76eusOK.pdf>
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2020). *EAEko eskualdeak eta beren jatorri atzerritarreko biztanleriaren portzentajea*. 2020. Urtea. https://www.ikuspegi.eus/documentos/tablas/euskera/2020/Comarcas_extranj_2020eus.pdf
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. (2018). *Atzerritarren ondorengo diren gazteak EAEn: (oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/eus/panoramica68eusOK.pdf>
- Jiménez, P.J., Durán, J., Domínguez, S. (2009). Hábitos deportivos de la población inmigrante de habla hispana en la Comunidad de Madrid. In Balibrea, E., Dominguez, S., Durán, L. (ed.), Echeita, R., Gieß-Stüber, P., Henry, I., Jiménez, P. J., Ley, C., Rato, M., Santos, A., eta Soler, S, *Actividad física, deporte e inmigración: el reto de la interculturalidad*. (45-76 or.). Plan de formación de la dirección general de deportes.
- Lleixà, T., Soler, S. (2004). *Actividad física y deporte en sociedades multiculturales: ¿integración o segregación?*. ICE-Horsori, Universitat Barcelona.
- Lleixà, T. (2004). Actividad física, deporte y ciudadanía intercultural. In Lleixà, T. eta Soler, S. (2004). *Actividad física y deporte en sociedades multiculturales: ¿integración o segregación?*. (95-110 orr.). Horsori.
- Lubián, C. (2016). La escolarización del alumnado de nacionalidad extranjera en la ciudad de Granada. Diferencias por nacionalidad y el papel de la red privada-concertada. *Revista de Sociología de la Educación-RASE*, 9(2), 212-231.

- Molina, F. (2010). Deporte, interculturalidad y calidad de vida: nuevos modelos de integración social. *Anduli: Revista andaluza de ciencias sociales*. (9) 165-173.
- Núñez-Antón, V., Oguiza-Tovar, A., eta Virto-Moreno, J. (2018). Efectos de la crisis económica en el empleo de la población inmigrante en el País Vasco: un análisis por sexo, formación y origen. *Papeles De Población*, 24(96), 97-118. <https://rppoblacion.uaemex.mx/article/view/8817/8937>
- Ortí, J. (2004). La educación física y el deporte escolar: propuestas para la interculturalidad. In LLeixá, T. eta Soler, S. (2004). *Actividad física y deporte en sociedades multiculturales: ¿ integración o segregación?*. (95-110 orr.). Horsori.
- Otero, B. eta Mendoza, K. (2017). La diversidad infantil y juvenil de la CAE en cifras. En J. A. Oleaga. (Ed.), *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal llamadas) segundas generaciones* (pp. 41-90). Bilbao, España: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco. http://addi.ehu.es:8080/bitstream/handle/10810/26367/1_2_La_diversidad_infantil_y_juvenil_de_la_CAE_en_cifras.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Pfister, G. (2004). Género y multiculturalidad: la apropiación del cuerpo y la práctica deportiva en las jóvenes inmigrantes. In LLeixá, T. eta Soler, S. (2004). *Actividad física y deporte en sociedades multiculturales: ¿ integración o segregación?*. (57-79 orr.). Horsori.
- Reher, D., Requena, M., & Sanz, A. (2011). ¿ España en la encrucijada? consideraciones sobre el cambio de ciclo migratorio. *Revista Internacional De Sociología*, 69(M1), 9-44.
- Robertson, R. eta Giulianotti, R. (2006). Fútbol, Globalización y Glocalización. *Revista internacional de sociología*, (45), 9-35.

8. ERANSKINAK

8.1. Eranskina. Galdetegia

Egindako galdetegia gaztelaniaz:

<i>"Fútbol e interculturalidad"</i>
<p>¡Hola! Soy Mikel, un investigador de la Universidad del País Vasco, y estoy realizando mi trabajo sobre la relación entre la interculturalidad y el fútbol.</p> <p>La interculturalidad va más allá de la coexistencia o el diálogo de culturas; y necesita de proyecto en común y actividades que reflejen una relación sostenida entre ellas. No es solo reconocer al "otro" sino, también entender que la relación enriquece a todo el conglomerado social, creando un espacio no solo de contacto sino de generación de una nueva realidad común. Por lo tanto, una sociedad intercultural, es aquella que en la que se da un proceso dinámico, sostenido y permanente de relación, comunicación y aprendizaje mutuo.</p> <p>Dado que el deporte, es un importante campo de socialización, sobre todo para gente joven y niños, mediante este cuestionario se pretende analizar como la práctica deportiva, y más concretamente el fútbol sirve como herramienta para fomentar la relación entre individuos de diferentes culturas, etnias, orígenes, etc. Centrándonos, eso sí, en la práctica del fútbol como actividad lúdica y dejando de lado el rendimiento deportivo y la competición.</p>
1. Género (para analizar posibles diferencias entre futbol masculino y femenino)
2. ¿Has nacido en la Comunidad Autónoma Vasca o España? De no ser así ¿dónde naciste y a qué edad viniste a vivir a la Comunidad Autónoma Vasca?
3. ¿Tus padres/familia han nacido fuera de España? ¿Dónde?
4. ¿A qué edad empezaste a practicar fútbol?
5. ¿Has jugado en algún equipo o club de fútbol?
6. Has jugado en el equipo de fútbol del colegio donde estudias/estudiabas o en clubs independientes de barrios o pueblos?
7. ¿Crees que la práctica de fútbol te ha ayudado a conocer gente nueva y hacer amigos/as?
8. ¿Te ha ayudado la práctica de fútbol a conocer a personas de culturas, etnias y/o procedencias distintas a la tuya?
9. ¿Hoy en día consideras que conociste a alguno de tus mejores amigos/as o que has construido grandes amistades jugando al fútbol?

10. ¿Son alguna de esas personas de origen cultural diferente al tuyo? ¿Han nacido en un país distinto al que tú has nacido, o sus familias son de origen distinto al tuyo?
11. ¿Ves el fútbol como una herramienta útil para aprender y transmitir valores relacionados con la interculturalidad y el respeto hacia las demás personas? ¿Por qué?
12. ¿Consideras que la práctica futbolística te ha sido beneficiosa para establecer puentes y conocer otras culturas y aprender de ellas? ¿Por qué / De qué manera?
13. ¿Te ha sido útil la práctica de fútbol para entender y aprender valores o normas de la cultura principal del lugar en el que vives? (como podría ser la cultura Vasca, Española, Europea, creencias y religiones distintas...)
14. ¿Crees que cuando has practicado fútbol en grupo, ya sea entrenamientos en un club o partidillos por la calle, la actitud de las personas en general ha sido respetuosa en lo que a diversidad cultural se refiere (sin tener en cuenta la competición)?
15. ¿Dirías que a la hora de competir (partidos de liga) la actitud de algunos cambia en ese sentido? ¿De qué manera?
16. ¿Crees que la práctica deportiva puede ser útil a la hora de crear relaciones y comunicación entre las diversas culturas que conviven hoy en día en la Comunidad Autónoma Vasca y en la mayoría de las sociedades? ¿Por qué?

Egindako galdetegia euskaraz:


<i>“Futbola eta kulturartekotasuna”</i>
<p>Kaixo! Mikel naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea, eta nire gradu amaierako lana kulturartekotasuna eta futbolaren harremanari buruz egiten ari naiz.</p> <p>Kulturartekotasuna kulturen elkarbizitzatik edo elkarriketatik haratago doa, eta elkarrekin proiektu bat eta haien arteko harreman iraunkorra islatzen duten jarduerak behar ditu.</p> <p>“Bestea” aitortzeaz gain, harremanak gizarte-multzo osoa aberasten duela ulertzea ere bada, harremanetarako ez ezik, errealitate komun berri bat sortzeko espazio bat sortuz.</p> <p>Beraz, kulturarteko gizarte bat harreman, komunikazio eta elkarrekiko ikaskuntza prozesu dinamiko eta iraunkorra ahalbidetzen duena da.</p> <p>Kirola sozializazio-eremu garrantzitsua da, batez ere gazte eta haurrentzat. Galdetegi honen bitartez, kirol-jarduera, eta konkretuki futbola praktikatzea, jatorri kultural desberdineko pertsonen harremana sustatzeko tresna baliagarria den ala ez aztertu nahi da.</p>
1. Sexua-generoa (gizonezko eta emakumezko futbolaren artean egon daitezkeen aldeak aztertzeko).
2. Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainian jaio zara? Bestela, non jaio zinen eta zein adinetan etorri zinen Euskal Autonomia Erkidegora?
3. Zure gurasoak/familia Espainiatik kanpo jaio dira? Non?
4. Zenbat urterekin hasi zinen futbola praktikatzen?
5. Futbol talde edo klub batean jokatu duzu?
6. Ikasten zenuen ikastetxeko futbol taldean jokatu duzu, edo auzo eta herrietako klub independenteetan?
7. Zure ustez, futboleko aritzeak jende berria ezagutzen eta lagunak egiten lagundu dizu?
8. Futboleko aritzeak, zureaz bestelako kultura, etnia eta/edo jatorrietako pertsonak ezagutzen lagundu dizu?
9. Futboleko arituz adiskidetasun handiak eraiki dituzula uste duzu? Zure lagunik onenetako bat futboleko jolasten ezagutu duzu?
10. Lagun horietatik, baten bat zure jatorri kulturalaren desberdinekoa da? Zu jaio zaren herrialdea ez den beste batean jaio al dira, ala haien familia zurea ez den beste jatorri batekoa da?

<p>11. Futbola, kulturartekotasunarekin eta besteekiko errespetuarekin lotutako balioak ikasteko eta transmititzeko tresna baliagarri bezala ikusten duzu? Zergatik?</p>
<p>12. Zure ustez, futbola praktikatzea baliagarria izan da zubiak ezartzeko eta beste kultura batzuk ezagutzeko eta horietatik ikasteko? Zergatik/nola?</p>
<p>13. Futbolearen aritzea baliagarria izan al zaizu bizi zaren lekuko kultura nagusiko balioak edo arauak ulertzeko eta ikasteko? (Euskal kultura, Europako kultura, sinesmen eta erlijio desberdinak...)</p>
<p>14. Futbola taldean praktikatu duzunean, bai klubeko entrenamenduetan, bai kaletik jokatutako partiduetan, pertsonen jarrera, oro har, errespetuzkoa izan dela kultur-aniztasunari dagokionez (lehiaketa kontuan hartu gabe)?</p>
<p>15. Lehiatzeko orduan (ligako partiduak, adibidez) batzuen jarrera zentzu horretan aldatzen dela esango zenuke? Nola?</p>
<p>16. Zure ustez, kirol-jarduera baliagarria izan daiteke gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan eta gizarte gehienetan elkarrekin bizi diren kulturen arteko harremanak eta komunikazioa sortzeko? Zergatik?</p>

8.2. Eranskina. Galdetegian lortutako erantzunak.

1- Sexua-generoa (gizonezko eta emakumezko futbolaren artean egon daitezkeen aldeak aztertzeko).

- **Emakumeak:** 34 erantzun (%32,4)
- **Gizonak:** 69 erantzun (%65,7)
- **Nahiago dut ez esatea:** 2 erantzun (%1,9)



2- Euskal Autonomia Erkidegoan edo Espainian jaio zara? Bestela, non jaio zinen eta zein adinetan etorri zinen Euskal Autonomia Erkidegora?

- **Bai:** 92. (%87,6)

Horietatik, 87 pertsona Euskal Autonomia Erkidegoan jaio ziren, 4 Nafarroan eta 1 Jaénen.

- **Ez:** 12 (%11,4)

2 pertsona Marokon jaio ziren eta 4 eta 5 urterekin etorri ziren EAera. Gainerakoak: Frantzia (2 urterekin etorri), Senegal (13 urterekin), Dominikar Errepublika (9 urte), Ukraina (9 urte), Peru (10 urte), Bolivia (12 urte), Alemania (3 urte), Venezuela (16 urte), Sahara (13 urte) eta Kamerun (16 urte).

Garrantzitsua da azpimarratzea EAEn edo Espainian jaio ez diren pertsonen artean guztiak gizonak direla. Ez da atzerrian jaiotako emakumeen erantzunik jaso.

3- Zure gurasoak/familia Espainiatik kanpo jaio dira? Non?

- **Ez:** 87 (%82,8) → Pertsona horien gurasoak EAEn edo Espainiako beste autonomia erkidegoetan jaiotak dira.

- **Bai:** 18 (%17,2)

Non?

→ Guraso biak EAetik edo Espainiatik kanpo:

Maroko (2 erantzun), Alemania (2 erantzun) Sahara, Bolivia, Dominikar Errepublika, Ukraina, Argentina, Kolonbia, Senegal, Venezuela eta Kamerun.

→ Gurasoetako bat Espainian eta bestea atzerrian:

Espainia-Egipto, Espainia-Peru, Espainia-Alemania (2 erantzun) eta Espainia-Kamerun.

Aurreko galderan bezala, ez da jatorri kanpotarreko emakumeen erantzunik jaso.

4- Zenbat urterekin hasi zinen futbola praktikatzen?

Erantzun guztiak kontuan hartuz, futbola praktikatzen hasteko bataz besteko adina 8 urte ingurukoa da.

5- Futbol talde edo klub batean jokatu duzu?


Inkesta bete duten pertsonen %100-a futbol talde batean jokatu du.

6- Ikasten zenuen ikastetxeko futbol taldean jokatu duzu, edo auzo eta herrietako klub independenteetan?

Futbol talde edo klub batean: 49 (%47,1)


Ikastetxeko taldean bakarrik: 14 (%13,5)

Bietan: 41 (%39,4)




7- Zure ustez, futboleko aritzeak jende berria ezagutzen eta lagunak egiten lagundu dizu?

1etik (gutxi) 5era (asko) erantzun.



8- Futbolearen aritzeak, zureak bestelako kultura, etnia eta/edo jatorrietako pertsonak ezagutzen lagundu dizu?

1etik (gutxi) 5era (asko) erantzun.



9- Futbolearen arituz adiskidetasun handiak eraiki dituzula uste duzu? Zure lagunik onenetako bat futbolearen jolasten ezagutu duzu?

- **EZ:** 8 erantzun (%7,6)
- Gainerakoak baiezko erantzunak dira. (%92,3)

Horien artean adierazgarriak iruditu zaizkidan erantzun batzuk daude:

- “Zalantzarik gabe, nire zirkulu hurbila futbolari esker ezagutu dut.”
- “Bai, Euskadira heltzean nire lagunak futbol klub batean ezagutu nituen.”
- “Bai, nire lagun onenetako batzuk futbolari esker ezagutu nituen.”

10- Lagun horietatik, baten bat zure jatorri kulturalaren desberdinekoa da? Zu jaio zaren herrialdea ez den beste batean jaio al dira, ala haien familia zurea ez den beste jatorri batekoa da?

- **EZ:** 53 erantzun (%50,4)
- **BAI:** 50 (%47,6)
- Erantzunik gabeko 2.

Erantzun adierazgarriak:

- “Ez, guztiok (Olabide) ikastolakoak gara”
- “Bai, euskaldunak dira” (Euskalduna ez den pertsona baten erantzuna)
- “Guztiak hemen jaio dira” (Neska baten erantzuna)

11- Futbola, kulturartekotasunarekin eta besteekiko errespetuarekin lotutako balioak ikasteko eta transmititzeko tresna baliagarri bezala ikusten duzu? Zergatik?

- **EZ:** 2 erantzun (%2)
- **BAI:** 103 erantzun (%98)

Erantzun adierazgarriak:

- “Bai, ikastetxeetatik kanpoko klubetan aniztasun etniko handiagoa dago, jendeak kultura berriekin harremanak izan ditzan lagunduz.”
- “Bai, mundu osoan oso zabaldua dagoen kirola da, eta jende askok praktikatzen du; beraz, zauden tokian zaudela, beste pertsona batzuekin integratzeko eta harremanetan jartzeko bidea izan daiteke. Gehienetan, errespetuzko giroan egiten da, ondo pasatzeko, nahiz eta egoera batzuetan hori ez den horrela izaten”.
- “Bai, kultura eta jatorri desberdinetako pertsonen arteko harremanak eraikitzen dituelako, kidetasun sentimendu-esparru komun batean.”
- “Bai, ohitura eta balio desberdinak dituen jendea ezagutzen duzulako. Horrela, irakatsi zizkizutenak ez diren beste ohitura batzuk ikasi eta errespetatzen dituzu, eta hori baliagarria izan dakizuke hain mundu globalizatuan.”
- “Bai, futbola aitzakia izan daitekeelako beste leku edo espazio batzuetan ezagutuko ez nukeen jendea ezagutzeko.”

12- Zure ustez, futbola praktikatzea baliagarria izan da zubiak ezartzeko eta beste kultura batzuk ezagutzeko eta horietatik ikasteko? Zergatik/nola?

- **EZ:** 28 erantzun (%26,6)
- **BAI:** 77 erantzun (%73,4)

Erantzun adierazgarriak:

- “Ez, beti jokatu dut nire ikastetxeko taldean.”
- “Ez, beste kulturetako neskekin harremanik izan ez dudalako.”
- “Bai, islamari buruz asko ikasi dut musulmanekin jokatzeari esker. Ramadanaren funtzionamendua ikasi dut, adibidez.”
- “Bai, erabat. Familia musulman batekin Ramadan afari batera egoteraino.”
- “Bai, hiriko auzo desberdinetan futboleant jokatu.”

13- Futbolearen aritzea baliagarria izan al zaizu bizi zaren lekuko kultura nagusiko balioak edo arauak ulertzeko eta ikasteko? (Euskal kultura, Europako kultura, sinesmen eta erlijio desberdinak...)

Erantzun adierazgarriak:

- "Bai, futbolak euskal kulturara egokitzen lagundu dit, nire jatorriko kulturaren aldean guztiz desberdina baita." (Venezuelako mutil baten erantzuna)
- Ez, hemengoa naizelako (Gasteiz), baina beste kultura batekoa banintz, tokiko kulturatik ikasten lagunduko zidala uste dut.

14- Futbola taldean praktikatu duzunean, bai klubeko entrenamenduetan, bai kaletik jokatutako partiduetan, pertsonen jarrera, oro har, errespetuzkoa izan dela kultur-aniztasunari dagokionez (lehiaketa kontuan hartu gabe)?

Erantzunen artean gehiengoa baiezkoa izan da, hau da, errespetuzko giroa bizi izan dute aisialdian futbola era ludiko batean jokatzean.

- "Bai, aisialdian errespetua dago, salbuespen puntualak salbu. Elite mailan ikusi nahi ez diren jokabideak gehiago ikusten dira."
- "Bai, ezagutzen ez nuen jendearekin jokatu ditudan partida guztiak beti izan dira errespetuz beteak."

Beste batzuk, bizi izandako egoera gehienetan errespetua egon dela aipatzen dute, baina errespetuzkoak izan ez diren egoerak ere bizi izan dituzte komentario edo jarrera arrazista izan duten pertsonekin.

- "Zoritxarrez denetarik ikusi dut. Onarpena ikusi dut eta jokabide arrazistak eta ezjakinak ere ikusi ditut. Baina kasu gehienak positiboak izan dira."

Azkenik, errespeturik gabeko jarrera gehiago aisialdian jokatzerakoan bizi izan dituzte klub batean jokatzean baino.

- "Nire kasuan ez da gauza bera izan klub batean jokatzea edo kaletik abiatzea; izan ere, konturatu naiz kalean jokatu dudanean maizago ikusi zitezkeela errespetu faltak."

15- Lehiatzeko orduan (ligako partiduak, adibidez) batzuen jarrera zentzu horretan aldatzen dela esango zenuke? Nola?

Erantzun desberdinak egon dira. Batzuk, lehiaketak eragiten duen presioaren ondorioz pertsona batzuen jarrera aldatzen dela adierazi dute, baina oso gutxitan entzuten direla kulturarekin edo etniarekin zerikusia duten errespetu faltak.

- "Beharbada bai. Lehiaketak sortzen dituen tentsioak, pertsona batzuei baloreak alde batera uztea eta beste pertsona batzuei huts egitea eragiten die."

- “Baliteke, baina ez dut gogoratzen jarrera arrazistarik ikusi dudarik. Tentsioa handiagoa da lehiatzeko orduan, eta horrek aurkarietako errespetu gutxiko jokabideren bat eragin dezake.”

16- Zure ustez, kirol-jarduera baliagarria izan daiteke gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan eta gizarte gehinetan elkarrekin bizi diren kulturen arteko harremanak eta komunikazioa sortzeko? Zergatik?

Garatu gabeko 5 erantzun izan ezik beste guztiak baieztakoak izan dira. Hauek dira pertsona batzuek eman dituzten zergatiak:

- “Bai, izan ere talde-kirola kultur aniztasuna sustatzeko era oso baliagarria iruditzen zait.”
- “Hala da. Futbolak, beste talde-kirol askok bezala, inguruko pertsonen errealitateak ulertzen laguntzen dizkiguten balio positiboak eta integrazio kulturala sustatzen dituela uste dut.”
- “Bai, ia komunikaziorik gabe bestetik harremana sendotzea lortzen duzun espazioa eta egoera da, eta hori kirolaz kanpoko edo testuinguru horretatik kanpoko egoeretara eramaten da.”
- “Bai. Jatorri, kultura eta ezaugarri desberdinetako pertsonak espazio berean eta helburu berarekin elkartzeko modu bat da, eta, beraz, kulturen arteko komunikazioa eta harremana sustatzen du.”